



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

2020ko abenduaren 23ko ebazpena, Ingurumen Administrazioaren zuzendariak emana, Sopelako (Bizkaia) Abaro AR-4 sektoreko Plan Partzialaren irismen-agiria formulatzeko.

AURREKARIAK

2020ko urriaren 28an, Abaro AR-4 sektoreko Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) irismen-dokumentua jasotzeko eskaera osatu zuen Sopelako Udalak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legeak) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legeak) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren, tartean, planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren —planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzekoa— 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, eta kontsulta horren emaitza espedientean bildu da. Kontsulta-izapidea honako arau hauetan ezartzen da: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan, eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horrez gain, izapideak abian zirela jakinarazi zitzaion Sopelako Udalari.

Era berean, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ingurumen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren ikuspegitik egoki iritzitako oharrak egiteko.

Legez ezarritako epea bukatuta, zenbait erantzun jaso dira hainbat erakunderen aldetik, eta haien emaitza espedientean jasota dago.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazuela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua prestatzeko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua araber, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko ondorioei buruzko azterketa, hautabide egokienak hautatu ahal izateko, eta betiere, jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak kontuan hartuta.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie administrazio publiko batek hartzen edo onartzen dituen plan eta programei, bai eta horien aldaketei ere —eta beti ere horiek egitea eta onartzea legez edo erregelamenduz ezarritako xedapen batek eskatzen badu—, baldin eta plan eta proiektu horiek esparrua ezartzen badute etorkizunean baimena emateko legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren araber, ebaluazio bateratua egin behar zaie (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei, eta, horren araber, horixe egin zaio Sopolako Abaro AR-4 sektoreko Plan Partzialari ere.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arruntari ekiteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak lehenik zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek hasiera-eskabide horri erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan; eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaion kasuetan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, honako hauek eskatzen dutena izan da kontuan: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari dagokionez; eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinek, erreferentziako dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txosteari edukari dagokionez, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztia aintzat hartuta, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainontzeko arauak), honako hau

EBATZI DUT:

Lehen. — Sopolako Abaro AR-4 Sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio

estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumenarekin lotutako kontuetarako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Sopelako Abaro AR-4 sektoreko Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) xedea da bizitegi-lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako AR-4 Abaro sektorearen antolamendu xehatua ezartzea, indarrean dagoen plangintzan ezarritako baldintza orokorren arabera. AR-4 sektorea Sopelako hiri-lurzoruaren hegoaldean dago, hiriko trenbidearen eta Gobela ibaiaren artean, eta 7,12 ha-ko azalera du. Sektoreak berez duen azalera horri, planeamenduak eskuratzeko esleituta dituen sistema orokorren espazioak ere gehitu zaizkio; beraz, Planaren xede den azalera, guztira, 10,62 ha-koa da.

Erabilera nagusia bizitegirakoa da, etxebizitza kolektiboetarako, eta 46.800 m²-ko gehieneko eraikigarritasuna ezarri zaio horretarako. Proposatutako eraikinak konfiguratzeko taxu ortogonal erabiliko da, lursailaren malda naturalaren aprobetxamendua baliatzeko moduan, N-S norabidean.

505 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da, baina zifra hori gerora alda daiteke. Eraikinek soto edo erdisotoko solairu bat edo bi izango dituzte, garajeetarako eta/edo trastelekuetarako erabiltzekoak; behe solairua, merkataritzarako edo bizitegi-erabilerarekin bateragarri den zerbaiterako erabiltzeko, eraikin batzuetan; eta 3 edo 4 solairu goraka, bizitegietarako erabiltzeko.

Zuzkiduretarako eta ekipamenduetarako lursailak sektorearen mendebaldeko muturrean eta hego-mendebaldeko muturrean biltzen dira (mendebaldean, irakaskuntzarako erabiltzeko lurzati bat dago eta hego-mendebaldean, merkataritzarako erabiltzeko lurzati bat). Espazio libreak Gobela ibaiaren ibilguaren ondoan daude (eremuaren hegoaldean eta ekialdean).

Bide-sarea eratzun moduan eginda dago: ekialdeko muturrean lotura bat du eta beste bi edo hiru, mendebaldeko mugan dauden bideekiko. Iparraldeko bidea hiriko trenbide-linearekin paraleloan doa. Bi zubi kendu dira, ura igarotzea oztopatzen baitzuten, eta urbanizaziora sartzeko zubi berri bat eraikitzea aurreikusi da.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, eta aplikatu beharreko jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:



- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa eta hiri-barreiadura saihestea, bai eta mugikortasun behartua ere; horretarako, irisgarritasunaren alde egingo da, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bidez, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzorua ahalik eta gutxien zigilatzea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste funtziori euts diezaion sustatuz.
- d) Hauek zaintzea eta hobetzea: habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa.
- e) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- g) Energia aurreztea, energia berriztagarriak efizienteak izateak eta horiek erabiltzea eta kogenerazioa sustatu.
- h) Aire garbia egongo dela ziurtatzea, baita zarata handien eta argi-kutsaduraren mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- j) Arrisku naturalak minimizatzea.
- k) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduketa indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Abaro SAPUR AR-4 sektorea Sopolako udalerraren hegoaldean dago. Iparraldean Bilbo-Plentzia metro-linearekin du muga, hegoaldean Gobela ibaiarekin, ekialdean Enrike Urrutikoetxea kalearekin eta mendebaldean Abaro kalearekin. Sektorearen azalera, hari atxikitako sistema orokorren espazioak barne, 10,62 ha-koa da.

Planaren eraginpean zuzenean dagoen esparrua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ez da gune babestua eta inbentarioan sartutako natura interesekoa ere ez. Era berean, ez du inbentariatutako edo katalogatutako paisaia-baliorik, ezta Planaren garapenak eragin diezaiokeen kultura-ondareko elementurik ere.

Eremuaren alderdirik nabarmenena da Gobela ibaiak zeharkatzen duela ekialdetik mendebaldera (inguru honetan ibaiari Matadero erreka ere esaten zaio), eta hori da Planaren eragin-eremuko elementu natural esanguratsuen; eta Batasunaren intereseko HIC 6510 habitata ("altitude baxuko sega-belardi pobreak") kokatzen den eremu batzuk ere badira bertan (aintzat hartu behar da habitat hori oso usua dela EAEn).

Plana bisoi europarraren kudeaketa-planaren barruan dago (118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa), Bizkaiko Lurralde Historikoko sare hidrografiko osoa baitu aplikazio-eremua. Sektoretik igarotzen duen tarteetan, hobetu beharreko tarte gisa kalifikatuta dago ibilgua.

Halaber, eremutik behera doala, arrain hiruarantzaren kudeaketa-planak (*Gasterosteus aculeatus*) eragindako eremu bat dauka ibaiak (Bizkaiko Foru Aldundiaren 186/2008 Foru Dekretua, abenduaren 9koa).

Planaren eremuak barruan hartuta dauka lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan sartzen den kokaleku batekin (kodea: 48085-00001).

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuaren zati batek Gobela ibaiaren lehentasunezko fluxu-eremuarekin eta haren uholde-arriskuko eremuak hartzen ditu (10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denbora). Gainera, eremuaren hegoaldean akuiferoak kutsatzeko arrisku handia dago.

Eragin akustikoari dagokionez, aurkeztutako inpaktu akustikoaren azterketak ondorioztatzen du ondo beteko direla kalitate akustikoko helburu (KAH) aplikagarriak, salbu eta metroaren bideetara orientatutako fatxadetan, gainditu egingo direlako ezarritako helburu akustikoak: 1 dB (A) gehiago egunez eta arratsalde, eta 5 dB (A) gehiago gauez. Irakaskuntzako eraikinaren kasuan, 3 dB (A) arte ere gaindituko dira KAHak ekialdera orientatutako fatxadan. Eremuko hegoaldeko zatia Bizkaiko foru-errepideen zortasun-eremu akustikoaren barnean dago.

4. Bertan jarduteko eremu desegokiak

Planaren xedeko eremuan ez da hauteman bertan jarduketak burutzeko desegoki den gunerik, baldin eta ingurumen-araudi aplikagarria betetzen bada, batik bat, arlo hauei dagokiena: plangintza hidrologikoa egitea, uholde-arriskua prebenitzea eta kutsadura akustikoa aintzat hartzea.

Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko mugarte hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa berrikusteko araudiaren 40. artikulutik 42.era artekoak (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartu zen araudia)

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen gaineko ingurumen-azterketa laburra

Jarraian ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da —alderi horiek ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira—:

Urek eta jabari publiko hidraulikoak jasango duten eraginari buruz

- Ingurumen-ebaluazio estrategikoan kontuan hartuko dira Sopelako Udalak aurkeztutako dokumentuan planteatutako antolamendu-aldaketak: "Uraren Euskal Agentziarekin izandako elkarrizketen ondoren bidalitako dokumentazioaren zenbait alderdiri buruzko azalpenak. SAPUR AR-4 ABARO. Sopela." 2020ko uztailak 2.
- Plan Partziala izapidetzeko, aintzat hartu beharko da Uraren Euskal Agentziaren 2020ko irailaren 16ko txostenean (IU-B-2020-2013) adierazitakoa; SAPUR AR-4 ABARO Plan Partzialaren hasierako onarpenaren aurreko txostenekoa eta Sopelako Matadero

errekaren azterketa hidraulikoan adierazitakoa. Azterketa horrek, besteak beste, honako hau ondorioztatu zuen:

- Garapen-proposamen berrien beharrak asetzeko beharrezkoa den baliabide hidrikoaren eskariaren kuantifikazioa sartu behar da, eta hornidura-azpiegitura nahiko badela justifikatu, erakunde kudeatzailearen txostenaren bidez.
- Justifikatu beharko da egungo saneamendu-azpiegitura behar bestekoa dela etorkizuneko garapenen kargei zerbitzua emateko, edo, horiek nahikoak ez badira, ildo horretan egon daitezkeen arazoei konponbidea emateko zer aurreikuspen egin den azaldu beharko da.
- Urbanizazio berrian drainatze iraunkorreko sistemak jarri beharko dira, hala nola gainazal eta akabera iragazkorrak, hartara, jariatze-ura lehendik dagoen egoeraren aldean handitu egingo balitz, konpentsatzeko modua egongo da, edo handitze hori gauza hutsa izango dela ziurtatuko da (Plan Hidrologikoaren 44. artikulua).
- Matadero errekan jarduketarik eginez gero, bioingeniaritzan oinarritutako soluzioak erabili beharko dira.
- Gogoan hartu behar dira, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile izateko, honako hauek: errekaetan dagoen flora aloktonoa kentzea, eta ibaiertzeko landaredi propiorik ez badago, haltzadi kantauriarreko berezko espezieak indartzea inguru hura, zuhaitz- eta zuhaixkak aldatuta.

Natura-ondareari dagokionez:

- Aurreikusitako zubi berria diseinatzean, ahalik eta gutxien eragin behar zaio Gobela ibaiari. Nolanahi ere, ibaiertzak leheneratzeko, ibai-inguruneetako ingeniarietza naturalistikoko teknikan oinarritutako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira.
- Gobela ibaiaren hegoaldean geratzen diren espazio libreak ibarbasoa lehengoratzeko erabili beharko dira.
- *Cortaderia selloana* eta *Arundo donax* flora-espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa bat idatzi behar da.

Kultura-ondareari dagokionez:

Planaren xede den eremuan ez dago kultura-ondareko elementurik. Hala ere, udalerrriak potentzial arkeologiko handia du, zenbait lanetan (Mendietan edo Moreagan) historiaurreko aztarnak agertu izanak hala erakutsi du. Hori dela eta, urbanizazioa egiteko behar diren lur-mugimenduak burutzekotan, kontrol arkeologikoa aplikatzea gomendatzen dugu.

Kutsatutako lurzoruei dagokienez

Adierazi digute 48085-00001 partzelan, lurzorua kutsatzeko moduko jarduerak edo instalazioak jasan dituzenez, lurra kutsaduratik garbitzeko lanak egin dituztela, nahiz oraindik lurzorua kalitateari buruzko adierazpena ez duten amaitu.

Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartze abian jarri aurretik, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, lurzorua kalitatearen azterketa bat egitea

lurzoruaren kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat lursailak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat; bigarrenik, bertan utzitako hondakinak, eraikinak eta hondeatuko diren lurak egoki kudeatuko direla bermatu beharko da, indarrean den hondakinen arloko legedia betez.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Antolamendu xehatuaren determinazioak jasota dituenek Planak, aurreikusitako antolamendu xehatuaren efektu espezifikoei zentratuko da bertan burutuko den ingurumen-ebaluazioa.

Ingurumen-azterketa estrategikoak, gutxienez, ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearren (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia beharko du, eta, horren osagarri, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotzen dena (dekretu horrek plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du).

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterlanean, laburpen txiki bat jasoko da planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, azterlanak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Arauetan eta Planarekin hierarkia-loturarik ez duten bestelako planetan edo programetan ezarritako ingurumen-babeseko irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehatuko dira, aplikatu behar badira.

Zehazki eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Sopelako Planeamenduko Arau Subsidiarioak
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Kantauri Ekialdeko Mugarte Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki uholde-arriskuko guneei lotutako zehaztapenak eta Eremu Babestuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Mugarte Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 186/2008 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Arrain hiruarantzaren, *Gasterosteus aculeatus* (Linnæus, 1758), Kudeaketa Plana onetsi duena, espezie kaltebera delako eta bere babesak berariazko neurriak eskatzen dituelako.
- Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua. Horren bidez, Biso Europarraren (*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.
- Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. eta 31.4. artikulatuak.

- EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua eta hurrengoak.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako aukeraren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Uraren Euskal Agentziak eragindako administrazio publikoei egindako kontsulta-izapidean emandako txostenaren arabera, kontuan hartuko dira Sopelako Udalak aurkeztutako dokumentuan planteatutako antolamendu-aldaketak: *"Uraren Euskal Agentziarekin izandako elkarrizketen ondoren bidalitako dokumentazioaren zenbait alderdiri buruzko azalpenak. SAPUR AR-4 ABARO. Sopela 2020ko uztailak 2.*

b Aurreikuspen bat egingo da planean egiten diren proposamenak gauzatzeko burutuko diren proiektu eta jarduketan izaerari buruz, batik bat lurzoru kutsatuei eta urbanizazio-proiektuari buruz.

c. Deskribatuko da planeko zer ekintzak izan dezaketen eragina ingurumenean, eta ekintza horiek kokatuko dira; garrantzi handienetik txikienera hierarkizatutako dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketan kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Azterlanak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterlanak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru-mota. Lurzoruetan dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako eta babestutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak jakinaraziko dira, baleude; esaterako, ibai-ibilguak, fauna- eta flora-espezie mehatxatuen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta landaredia, flora eta fauna autoktonoak. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik elementu interesgarriak ote dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurzoruko kutsaduratik eratorritako arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.

e. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruen kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsatzaile izan daitezkeenak identifikatuko dira.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasan dezaketen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumenaren ikuspegitik gatazkatsu izango diren eremuak detektatuta izan behar ditu, eremu horiek proposamenen garapenarekin bateragarriak izan daitezten; horretarako, kontuan hartu beharko du ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela, besteak beste Ebazpen honen 1.3. apartatuan aipatzen direnak.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko zehatza egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta ingurune hauskor edo kalteberak ebaluatu ahal izateko.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek ingurumen-kalitateko elementuen gainean, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterlanaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuaren erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenean, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterlan hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, horiek ere gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eskatu ahal izateko.
- Kutsatuta egon daitezkeen kokaguneetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.

- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa), aurreikusitako erabileren arabera. Ildo horretan, xehetasunez deskribatuko dira kalitate akustikoko helburuak betetzeko behar diren neurri zuzentzaileak, bereziki irakaskuntza-erabilerako eraikinaren kasuan.
- Gainera, 213/2012 Dekretuaren 16. artikuluekin bat etorritik, etorkizuneko hirigintza-garapenean, trenbidetik 75 metro baino gutxiagora eraikinak egingo badira, bibrazio-mailen ebaluazioa ere jaso beharko da eragin akustikoari buruzko azterketan, garapenak kalitate akustikoaren helburuak betetzen dituela egiaztatzeko eta, neurri zuzentzaileak ezartzeko beharrezkoa izanez gero.
- Ingurumen-azterlan estrategikoak hirigintza-garapenak Ballonti ibaian eta haren zortasunean zer eragin izango duen analizatuko du, baita *Gasterosteus aculeatus* eta *Mustela lutreola* espezieetan zer eragin izango duen ere.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta lehengoratzeko gaitasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondoreak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondore edo efektu horien iragarpenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterlanaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoan aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu, eta 3. apartatuan prebenitu, zuzendu edo konpentsatzeko identifikatutako ondorio bakoitzarekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, txosten honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaietako eta Erreketako Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki atal arauemaileko 44. artikulutik 46. artikulura zehazten diren irizpideak. Neurri horiek, besteak beste, honakoak izango dira: urbanizazio berrian drainatze iraunkorreko sistemak jarri, hala nola gainazal eta akabera iragazkorrak; hartara, jariatze-ura lehendik dagoen egoerari dagokion balioarekiko handituz gero, konpentsatzeko modua egoteko, edo handitze hori hutsala izateko, Plan Hidrologikoaren 44. artikulua xedatuta duen bezala.
- Inola ere errespetatu egingo da EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta Ekialdeko Kantaurialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoa laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzeko, biziberritzea eta hobetzea.
- Aspaldidanik potentzialki lurra kutsatzeko modukoak ziren jarduerak izan dituztenez eta beraz etorkizuneko erabiltzaileentzat eta /edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen lursailak daudenez bertan, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egitean, lurzoru ez kutsatzea eta kutsatutakoa garbitzea arautzeko duen ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraiki.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurrekusiak kontuan hartuta. Planaren eremuaren zati bat Bizkaiko foru-errepideetako zortasun akustikoko eremuetan sartuta egoteak berez dakartzan neurriak aintzat hartu beharko dira.
- Gobela ibaiari lotutako fauna-espezieentzat inola ere ondorio negatiborik ez egoteko neurriak, bereziki *Gasterosteus aculeatus* eta *Mustela lutreola* espezieentzat.
- Gobela ibaia, edo Matadero erreka, berreskuratzeko neurriak. Ibilguan inongo jarduketarik egitekotan, bioingeniaritzan oinarritutako konponbideak erabiliko dira. Honako neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatu beharko dira: erreka flora aloktonoa ezabatzea, eta, ibaiertzeko landaredi propiorik ez dagoen lekuetan, haltzadi kantauriarreko berezko espezieak aldatzea (bertako zuhaitz- eta zuhaixkak).

- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak erabiliko, hala nola *Cortaderia selloana*, *Arundo donax* eta abar. Orobat, neurriak hartuko dira espezie horiek kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko; horretarako, kontrolatu egingo da birlandaketan eta urbanizazioko lorategietan erabiliko diren mailegu-materialen eta landare-lurraren jatorria eta osaera.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak zenbait neurri jasoko ditu planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arintzeko, bai eta hartara egokitzeko ere. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koadernoa» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, non deskribatuko den zer neurri aurreikusten den Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak gainbegiratzeko. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, bai eta plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoaren eboluzioa ere.
- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek azterlanaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterlanean, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

6.6. Ingurumenari lotutako arloen aburpena.

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterlanaren 6.1.1 apartatuan deskribatu denari jarraikiz.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta / edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterlanaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Alde teknikoak ez diren aldeei buruzko laburpena.

a. Azterlanak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen hori, bestalde, erraz ulertzeko moduan idatzita izan beharko da, ebaluazio-prozesuan landutako hainbat gaietan prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak ere uler dezaten.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Izapideak: informazio publikoa eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerranda hau hartuko da kontuan:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Jasangarritasun eta Ingurune Naturalaren Saileko Ingurumen Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.

- Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzako Kultura Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak aisialdi-elkartea). Bizkaia

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, jendurreko informazioaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak plan edo programaren azken proposamenean ingurumenari lotutakoak nola txertatu dituen deskribatzeko laburpen-dokumentua, ingurumen-azterketa estrategikoa irismen-dokumentuari nola lotu zaion azaltzekoa, eta egindako kontsulten emaitzak eta emaitzok aintzat nola hartu diren azaltzeko dokumentua.

Ingurumen-organoaren egitekoa, prozeduraren fase horretan, funtsean, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa burutzea izango da, aipatutako arauaren 25. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Jarraibide hauek ingurumen-organoak eskabidea berrikustea errazteko ezarri dira neurri hauek eta, azken finean, ahalik eta bizkorren eta erosoan emateko aurkeztu den eskabideari buruzko ebazpena.

Bestalde, jarraibideak lehenik organo substantibora bideratzen badira ere, garrantzitsua da proiektuaren sustatzaileak ere haien berri jakitea eta dagokion guztia betetzea:

Ingurumen Adierazpen Estrategikoa emateko eskaera telematikoki aurkeztuko da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratutako jarraibideen arabera, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/tramitacion-del-procedimiento-de-evaluacion-ambiental-estrategico/web01-a2inginp/es/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu behar da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/GUIA-presentacion-documentacion.pdf


Bigarrena. - Sopelako Udalari ebazpen honen berri ematea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduak 23.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

Director de Administración Ambiental



Fdo/Izta: Javier Agirre Orcajo

RECEIVED
SECRETARIA
GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARTZA
2011-07-07 14:00
D. DE O